

**II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA****LEZAKO UDALA****Behin betiko onestea eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergaren ordenantzaren aldaketa**

2020ko maiatzaren 25ean egindako ohiko bilkuran Lezako Udalak erabaki zuen behin-behinean onestea eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergaren ordenantza, ALHAOn 2020ko ekainaren 3an (62. zk.a) argitaratua, aldatzea. Erabaki horren kontrako erreklamaziorik aurkeztu ez denez horretarako ezarritako aldian, bat etorri Arabako toki ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauak 16.3 artikuluan xedatutakoarekin, behin betiko bihurtzen da, eta ordenantzaren testu osoa argitaratzen da toki araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49.c eta 70.2 artikuluetan xedatutakoa betez.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau Lezako Korporazioak onartu zuen 2003ko azaroaren 12an, eta 2004ko urtarilaren 1ean jarri zen indarrean.

Lezako Korporazioak eranskina aldatu du 2020ko maiatzaren 25ean, eta ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Ordenantzak eta eranskinak indarrean jarraituko dute, aldatzea edo indargabetzea erabaki arte.

**ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO
ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA****ERANSKINA**

Eraikuntza, instalazio edo obra mota	Karga tasa (%)
— Oin berriko eraikuntza, instalazio edo obrak	4
— Aldaketak eraikuntzetan, instalazioetan edo haien egituretako obretan	4
— Kanpoko itxura aldatzea edozein motatako eraikuntza, instalazio edo obretan	4
— Eraikuntza, instalazio edo obrak eraistea	4
— Eraikuntza, instalazio edo obra barruko eraberritzeak	4

Leza, 2020ko uztailaren 6a

Alkatea

JOSÉ ANTONIO SUSO PÉREZ DE ARENAZA